

telebista ♦ irratia

Karlos Argiñanok sukaldaritzako saioa estreinatuko du ETB1ean

Martxoaren hasieran ekingo dio saioari eta euskaraz emango du, egunero

Erredakzioa / Donostia

Martxo hasieratik, Karlos Argiñano sukaldari ospetsua izango dugu ikusgai egunero ETB1-etik. Hamar urte igaro dira Argiñanok telebista saio bat euskaraz azken aldiz aurkeztu zuenetik.

TELEBISTA saio berri bat aurkeztuko du Karlos Argiñano sukaldariak datorren martxotik aurrera. Egunero zenbait errezeta eskainiko ditu, euskaraz, eta eguerdian eta arratsaldean izango da programa, *Gaur Egun* albistegiaren aurretik, ETB1 katetik. Argiñano berriro ere Euskal Telebistara itzuliko da hamar urteren buruan —garai hartan hasi zen telebistako munduan—. Ordutik hona, berezko umorea eta sukaldaritzarako trebezia erakutsi ditu Beasaingo sukaldariak.

Esperientzia telebistan aurretik ere

Telebistarekin lehen harremanak 1989an izan zituen, euskarazko saio batean.



ETB

Hamar urte igaro ondoren, berriro ETB1era itzuli da Karlos Argiñano sukaldaritzaren inguruko saio batekin.

Hamalau euskal sukaldari izeneko saioa aurkezten zuen, 14 sukaldarirekin batera menua prestatuz. Ondoren, ETB2 katean, *Menú del día* saioari ekin zion, gazteleraz, eta egunero hamar minutuz errezetak

eskaintzen zituen, eta hainbat aholku eta proposamen ere egiten zituen. Bi denboraldi bete zituen saio honekin eta arrakasta handia izan zuen, ikusleengana hurbiltzea lorturik. Ondotik, Espainiako beste tele-

bista kate batzuetan arituda. Aldi berean, sari ugari jaso ditu, sukaldaritzaren alde eginiko lana eta komunikatzeko duen gaitasuna saritzeko. Telebista alorrean, aurren Ondas saria eta TP sariak jaso ditu.

txoritxoari mokoka ♦ Ines Intxausti

ASTE honetako astelehenean Maite Arizaga izeneko emakumea azaldu zen *Egin kontu* programan. Ausarta irudituzitzaian bere presentzia. Hondarribitar peto-petoa da Maite —Amute auzoan jaioa delako hain zuzen ere—, eta orain dela gutxi bere herrian ikusitakoak ikusita, ez da ahuntzaren gauerdiko eztula emakumeek alardean parte hartzearen aldeko izatea, eta sentitu eta uste duen guztia jendaurrean defendatzera joatea, maiteok...

Burua ondo hornituta eta patxadaz azaldu zen platoan Arizaga. Bere jarra argi-argia zelako. *Egin kontu* saioan ez da oso ohikoa telefonoz zuzeneko deiak jasotzea. Egun hartan, berriz, kontua egingo duzuezen jo eta fuego ibili omen zen Miramongo zentralita. Txinger honen erdian bizi diren Hondarribiko Betikoek zabaldu zuten lehen

Gure El Ejidoak

sua aurikularrarekin. Tradizioa tradizioa dela esanez dena konpondutzat eman nahi zuten. Baina saioko sardina ondarrutarrak, lehen errekan garbitzen genituela trapu zikinak eta gaur, ordea, garbigailuak ditugula esanez apurtu zuen hondarribitarraren tonu beroa.

Txantxak aparte, argi dago ezin dela onartu bertan orain dela gutxi gertatutakoa. Gabon zahar egunean neska bat jipoitu zuten —sudurra apurtu zioten— eta ez da ez albiste ez notizia izan, inon. Are gehiago, *Egin kontu* programara deitu zuen emakumeak neska behar ez den lekuetatik ibiltzeagatik astindu zutela esan (justifikatu!) zuen. Mesedez! Horrela bortxaketa eta hilke-

ta guztiak justifika ditzakete topiko guztietatik! Hondarribiko herrian urtean zehar alarde mistoaren aldeko emakume eta gizonek bizi duten giroa uste baino arriskutsuagoa da. Nola onetsi dezakete, ezer egin gabe, halako desintegrazio eta aurkaritza soziala, Madrilera(!) senadore bat gehiago eramatearen truke. Argi dago, Arzalluzek nahiko balu, hasiera-hasieratik errotik eragotziko lukeela arazoa, besteetan egiten duen legez.

Hondarribia herri ederra da. Bertako guztiena hain zuzen ere. Baina Borja Marik eta Borjamarikumeek eskuan duten bolborarekin ari dira jolasten ezjakintasun itsu osoz. Ahariak bezala, etorkizuneko hormaren aurka erasotzen dabilta alardearen musika baino errepikakorragoa eta aspergarriagoa den ariketa zirkularra eginez.

Miopiaren sendabideari buruzko erreportaia eskainiko du Teknopolis saioak

Asteburu honetan *Agur miopiari* erreportaia eskainiko du Teknopolis zientzia saioak, Pili Kaltzada kazetari eta aurkezlearen eskutik. Larunbatean ETB1ean izango dugu ikusgai eta igandean bigarren katean. Miopiaren sendabideaz mintzo den erreportaian, gaitz hau sendatzeko laser teknologia bidez erabiltzen den teknika ia miragarriaren berri emango da. Anestesiari ez duen hamabost minutuko ebakuntza pausoz pauso ikusteko aukera izango dugu. Bestalde, ebakuntza egin dioten pertsona baten testigantza entzungo dugu, eta mediku oftalmologo batek gaiari buruz emango dituen azalpen guztiak eskainiko ditu. Honekin batera, *Urdaibai: oreka bila* erreserban izeneko erreportaia eskainiko du. Erreportai horretan, Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaileek erreserbako lehorreko animaliak harapatu, markatu, askatu eta haien jarraipena nola egiten duten ikusi ahal izango da.

Salvajes antzezlanak eskainiko du Lo tuyo es puro teatro antzerki saioak

Larunbatero antzerkiak arduratzen den La2eko saioan —*Lo tuyo es puro teatro*—, *Salvajes* antzezlanak izango da ikusgai. Alfonso Alonso de Santosen lanean oinarriturik, Gerardo Mallak zuzentzen du lan hori, eta Amparo Soler Leal, German Cobos eta Beatriz Bergamin dira protagonista nagusiak. Kartzelan denboraldi batez egon ostean etxera itzultzen den emakume du protagonistatzat lan honek. Antzezlanaren ondoren, *Lo tuyo es puro teatro* errebista eskainiko du saioak (gaurkoan Cyrano de Bergerac pertsonaian oinarrituko da). Saio hau Rafael Herrero zuzentzen du eta Natalia Dicenta aktoreak aurkezten du. Cyrano de Bergerac pertsonaia ezagunaren papera Manuel Galiana aktore espainiarrak egingo du.